

UHOEDEAK NAFARROAKO ERDIALDEAN

INFORMAZIO PRAKTIKOA

KONTSUMITZAILEARENTZAKO ARRETA

Herritar guztiei gomendatzen zaie, uholdeek jabego nahiz ondasunetan eragindako kalteen erreklamazioak aurkez ditzatela dagozkien aseguru konpainien aurrean. Lehendabiziko pauso hau nahitaezkoa da dagozkien ordainez eta erakunde publikoek onar ditzaketan laguntza osagarriez profitatu ahal izateko.

Aseguru konpainietan jasotako arretarekin ados ez dauden herritarrek alde aurreko hitzordua eskatzen ahal dute Nafarroako Gobernuako **Kontsumo eta Arbitraje Bulegoan**, 848 427 733 eta 848 427 758 telefonoen bitartez, horri buruzko aholkularitza lortzeko. Gobernuak Tafallan ezarri duen Kontsumitzailearendako Arreta Puntuan ere (Nafarroa plaza, 5), arreta presentziala emanen da bihar, ostiralez, 09:30etatik 13:00etara bitartean. Eta datorren astean hasita, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

NEKAZAL ETA ABELTZAIN SEKTOREARENTZAKO ARRETA

Merkataritza, nekazaritza eta industriako sektore profesionalari gomendatzen zaio, uholdeek jabego nahiz ondasunetan eragindako kalteen erreklamazioak aurkez ditzatela dagozkien aseguru konpainien aurrean. Lehendabiziko pauso hau nahitaezkoa da dagozkien ordainez eta erakunde publikoek onar ditzaketan laguntza osagarriez profitatu ahal izateko.

Bestetik, nekazariari eta abeltzainari zuzendutako aplikazioak eseki dira euskaraz eta gazteleraz, [nekazaritza ustiatzei atxikitako ondasunetan](#) eta [ureztatze azpiegituretan](#) izandako kalteei buruzko komunikazioa errazteko. **Tafallako Eskualdeko Nekazaritzako Bulegoa** ere (Nafarroa Behereko Etorbidea, 14) egunero irekita egonen da, 08:00etatik 14:30etara bitartean, sektoreari arreta presentziala emateko (telefonoa: 948-703931).

AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA

Tafallako autobus-zerbitzuaren adjudikazioa duen Conda konpainiarekin egindako akordioaren bitartez, Puiu eta Tafalla Artaxoan barna lotzeko autobus zerbitzu berezia abian jarri da, Garinoain eta Barasoain herriei ere zerbitzua emanez, bai eta Puiu Iruñearekin lotzeko linea bat ere, asteazkenetik joan-etorrietan diharduetan.

Puiu-Tafalla zerbitzu berezia egun-egunero ibiliko da, astelehenetik igandera, eta 08:00etan irtengo da Puiutik eta 12:30etan Tafallatik. Gainera, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko zerbitzua ere izanen da, eta 17:00etan irtengo da Puiutik eta 19:30etan Tafallatik.

Puiutik Nafarroako hiribururaino bost zerbitzu ere izanen dira lanegunetan. Autobus zerbitzu bereziaren ordutegiak ondorengo esteketan kontsulta daitezke:

[-Tafalla-Puiu / Puiu-Tafalla ordutegia](#)

[-Puiu-Iruña / Iruña-Puiu ordutegia](#)

San Fermin festak direla eta, asteazken honetatik aurrera abian jarri den Puiu-Iruña zerbitzu bereziari larunbata honetarako, hilak 13 eta iganderako, hilak 14, Nafarroako hiriburutik bueltatzeko bi autobus gehitu zaizkio, eta 00:00 eta 4.30tan aterako dira.

N-121 errepidetik, [Tafalla eta Puiu arteko behin-behineko pasabidea](#) prestatu ondoren (asteburu honetarako aurreikusia), autobus zerbitzu berezia kenduko dute, Tafalla-Iruña linea erregularrak Tafallako iparraldeko herri guztiei zerbitzua emanen baitie.